

Zer da berria



UXUE APAOLAZA LARREA

Ez dira taberna batean ausartu, baizik eta Instagramen, Facebooken, edo email batean (mundu digitalean ere badira zaharkituak: email hori Hotmailekoa izan daiteke oraindik, pentsa). Zuzeneko lehen musuen ondoren, Whatsapp eta Telegram bidez, poltsikotik iritsiko zaizkie laztan batzuk, eta bideodeiez besteak. Ilunabarra elkarrekin begiratu dutenean, desioa ez dute izar iheskor bati begira eskatu, Elon Musk-en satellite bati begira baizik: deigarriagoa, Starlink (batzuek etxean googleatu ondoren jakin dutena zer den).

Teknologia berriek dena arintzen dutela dirudi. Oso gutxi ikusten dugu, zati bat bakarrik, politena. Baina eman digute abisua, zirrikituren batetik ateratzen dira telefono mugikor geometriko eta kolore uniformedunaren azpiko lohiak. Aldizkari honetan bertan gogorarazi dizkigu Adrián Almazánek. Kongoko haurren esplotazioa kobaltoa lortzeko, energia gastua, hondakinetan lurperatzen ditugun herrialdeak (Ghana kasu), gerrak, betiko herrialdeak (Ameriketako Estatu Batuak, Txina), prekarietatea, burujabetza galera... Guztiak dirudi nahiko zaharra.

Arinagoa zirudien, baina zer da berria beldurak zaharrak badira, konpromisoa aingura bat baino gehiago bazen azkenean, eta, gabe, amiltzen bagara berdin gaur egun ere, zer da berria desioa beteko ez bada berdin, zer da berria askatasuna ezer ez bada, eskurik ez badago heltzeko, zer da berria dena berdin-berdin kutsatzen badugu. Berria izenak baino ez dira (izango). ●



MOTZEAN

Frantziako Konstituzioak "aborturako askatasuna bermatzea" jasoko du; konstituzioan abortu eskubidea "bermatzen" duen munduko estatu bakarra da. Kolektibo feministek, oro har, txalotu egin dute bozketa. "Eska ditzagun oinarrizko baliabideak hori gauzatu ahal izateko" gehitu du Baionako Manifeministen Kolektiboak.

Indar Gorriko 61 kide atxilotu eta behin-behinean aske utzi dituzte. Hala nola lesio larriak eragitea, talde kriminaleko kide izatea eta liskarretan aritzea egotzita ikertzen dituzte.

Frantziako Poliziak sei gazte atxilotu ditu Urruña, Hendaia eta Baionan, erretreten erreformaren aurkako manifestazioan istiluak eragitea egotzita. Aske utzi dituzte gero.

Nafarroako Lokizaldean, egun batzuk lehenago egin dute Korrika. Eremu ez-euskaldunean kokatuta dagoen eskualdean Korrikaren kilometroak erosteko hasi ziren egun hau ospatzen.

Herritarren artean hiru hilabeteen 70.000 euro lortzea du erronka Amillubi proiektuak. Zestoan dauden lur emankor batzuk ondasun kolektibo bihurtzea da helburua.